

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

#### **Foru Gobernu Kontseiluaren 5/2021 Erabakia, urtarrilaren 19koa. Deportivo Alavés klubari Arabako Domina ematea**

Foru Gobernu Kontseiluak erabaki du 2021eko Arabako Domina Deportivo Alavés klubari ematea, 100 urteko historiagatik, Arabako herritarrentzat kirol eta gizarte balio nabarmenak defendatzeaz gain, Arabako Lurralde Historikoaren enbaxadore gisa lan handia egin duelako.

Deportivo Alavés futbol kluba da eta Vitoria-Gasteizen du egoitza. 1921eko urtarrilaren 23an sortu zen, eta, beraz, 2021eko urtarrilaren 23an izango da sorreraren mendeurrena.

Deportivo Alavésék Sport Friend's Club izeneko taldean du jatorria. Elkarre hori José Cabeza-sek eratu zuen 1920ko uztailaren 1ean, eta futboleant jokatuta nahi zuten unibertsitateko ikasleek osatzen zuten. Klub apal horrek hainbat topaketatan parte hartu zuen. 1921eko urtarrilaren 6an zuzendaritza batzordea berri zuten eta Hilario Dorao Íñiguez izendatu zuten presidente. Berritze hori mugari izan zen klubaren historian, zeina euskal futbolaren edo Ipar Eskualdeko futbolaren bigarren kategorian lehiatzen baitzen.

Urte bereko urtarrilaren 23an jokatuta zuten azken aldiz taldeak Sport Friend's Club izenarekin; izan ere, egun horretan, zuzendaritza batzordeak erabaki zuten izena aldatu, eta Deportivo Alavés jartzea.

Sortu zenetik, Arabako gizartearen balio bereizgarriak eragin nabarmena izan dute klubean. Ehun urtez oztopoak gainditzeko gaitasun handia erakutsi du, baita harrotasuna eta apaltasuna ere, arrakasta izan duenean, eta aurrera egiteko ahalmena, porrotaren ostean.

Ehun urteko ibilbidean, lehenengo mailara igo da hainbat aldiz taldea; 1946ko Federazio Kopan garaipena eskuratu zuen, eta 2001eko UEFAko finalean Liverpoolen aurka lehiatu zen.

Alfredo Donnay Gasteizko musikariak eta poetak idatzi zuten Deportivo Alavésen himnoak berak (Urrezko Zeledoiak elkarteak 2018an euskaratua) argi uzten du klubak, bere balioak direla eta, hirian eta lurraldean duen garrantzia eta errotzea: "Deportivo goazen, kementsua zuri-urdi-nez. Aintza zuri Alavésa, gaur egun, iraganean lez. Gasteiz osoa dago zutaz harro ta itxarodun, ekinaren bidez, berriz izan zaitezten txapeldun. Bultza gogoz, aurrera Deportivo. Bultza gogoz, sekula amore eman gabe; ihardunean garaipenaren bila, zure loria haziz ta hirikoa ere. Bultza gogoz, aurrera Deportivo, etsi barik borrokatu zelaian, Gasteiz hiriak txaloz babesten zaitu, Araba osoak zaitu bihotzean"

Ezaugarri horiei esker, historian zehar, zale zuri-urdinek erabateko babesag agertu diote taldeari, unerik gogorrenetan sufrituz, eta harrotasunez beteta unerik gozoenetan. Zaleek pasioz animatzen dute taldea, baina beti errespetuz. Bularrean armarriga daramatenei eskakizun bakarraig egiten diete: haien portaeran, sakrifizioan, gorputz eta ariman aritzean eta konpromisoan islatuta ikustea beren buruak zaleek.

13.000 pertsonatik gorako masa soziala duen eta kolore urdina eta zuria bereizgarri dituen taldea Arabako eta Gasteizko historiaren zati da, eta erreferentea da gazteentzat eta, oro har, Arabako gizartearentzat. Zalantzarik gabe, gizarte kohesiorako elementu garrantzitsua da, eta, urte luzetako ibilbidean zehar, gure lurraldea ezagutarazten lagundu du, bai estatuan, bai nazioartean.

Deportivo Alavés kirol sozietate anonimoa da, oinarrizko kirol elkarteak bultzatzeko eta izaera profesionaleko erakundeentzako erantzukizun juridiko eta ekonomikoko eredu bat ezartzeko sortua. Taldearen kirol egitura oso eredugarria da beste erakunde askorentzat, bai tokikoentzat, bai kanpokoentzat; izan ere, taldeak prestakuntza hitzarmenak ditu lurraldeko dozenaka klubekin, berriki emakumeen futbolari bultzada ematen hasi zaio, eta horrez gain, antolaketa eta enpresa egitura aparta du eta enplegua sortzen ahalegintzen da.

Hori guztia dela eta, Arabako Foru Aldundiko Gobernuak esker ona adierazi nahi dio Deportivo Alavés futbol klubari, eta foru erakundeak ematen duen saririk garrantzitsuena eman.

Horregatik guztiagatik, Ohore eta Goraipamen Araudia onesten duen apirilaren 8ko 23/2008 Foru Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Arabako diputatu nagusiaren proposamenez eta Foru Gobernu Kontseiluak gaurko bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Deportivo Alavés futbol klubari Arabako Domina ematea, 100 urteko historia-gatik eta kirol, gizarte eta enpresa arloetan Araba garatzen laguntzeko agertutako konpromisoa eta laguntza aitortzeko.

Bigarrena. Horretarako berariaz antolatutako ekitaldian emango zaio domina.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 19a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Diputatu Nagusiaren Kabinetearen eta Komunikazioaren zuzendaria*

**ELENA FERREIRA SEBASTIÁN**